



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Gizakien aurrean Ni ukatzen nauana, ostera, ukatu egingo dot Neuk ere zeruan dagoan nire Aitaren aurrean”

2023ko ekainaren 25a  
Urteko 12. igandea (A)

### Mateo 10, 26-33.

Aldi haretan, Jesusek esan eutsen bere apostoluei: «Ez izan gizakien bildurrik. Ez da-eta ezer ezkuturik, agertuko ez danik; ez ezer gorderik, jakingo ez danik. Gaueko ilunpetan esaten deutsuedana, esaizue eguneko argitan, eta belarrira entzuten dozuena, iragarri etxe gainetatik.

Ez izan bildurrik gorputza hiltzen dabenei, baina arima ezin hil daikeenei; izan bildur, inori izatekotan, gorputz-arimak su-leizean galdu daikezanari. Ez al dira, txanpon batean saltzen txori bi? Eta hareetako bakar bat ere ez da lurrera jausten zuen Aitaren baimen barik. Zuen buruko ule guztiak ere kontauta dagoz. Beraz, ez izan bildurrik; txori guztiak baino gehiago zaree zuek.

Gizakien aurrean nire alde urtetzen dauanak, bere alde izango nau Ni ere, zeruetan dagoan nire Aitaren aurrean. Gizakien aurrean Ni ukatzen nauana, ostera, ukatu egingo dot Neuk ere zeruan dagoan nire Aitaren aurrean».

Jesusek mundo latz batera bialtzen dauz apostoluak. Behin eta berriro bildurrik ez izateko esaten deutse, bere laguntza beti edukiko dabelako eta euren bitartekoa izango dalako Jainkoaren aurrean.

## BELDURRIK GABE

José Antonio Pagola

Oso berria zen artean Jesus hil zutenaren oroitzapena. Kristau-elkarteetan bertsio desberdinak zebiltzan Jesusen Pasioaz. Guztiak zekiten gauza arriskutsua zela gaizki bukatu zuen lagun baten izenean agertzea. Gogoan gorde zuten Jesusen esaldi hau: «*Ikaslea ez da bere maisua baino gehiago*». Maisuari Beeltzebul esan badiote, zer ez ote dute esango haren ikasleez?

Jesusek ez zuen nahi ikasleek ilusio faltsurik egin zezaten. Inori ezin pasa dakiok burutik haren benetako jarraitzaile izatea, haren zorian hein batean parte izan gabe. Noiz edo noiz, norbaitek uko egingo dio, tratu txarra emango, irainduko, gaitzetsiko. Zer egin?

Barru-barrutik datorkio erantzuna Jesusi: «*Ez izan haien beldur*». Beldurra ez da parte onekoa. Ikasleak ez dio utzi behar zurrundu dezan. Ez du isilarazi behar. Ez dio utzi behar, ezerगतik ere, Jesusen mezua hots egiteari.

Erasoaldian zein jarrera izan argitu nahi dien Jesusek. Hasia da jadanik, Jesusekin, Jainkoaren Berri Onaren errebelazioa. Konfiantza izan behar dute. Askorentzat oraindik «*estalia*» eta «*ezkutua*» dena agerian geldituko da egun batean: ezagutuko da Jainkoaren Misterioa, Jainkoak gizakiari dion maitasuna, guztiak bizi zoriontsuagoa izateko hark duen egitasmoa.

Jesusen ikasleak deituak daude errebelazio-prozesu horretan oraintxetik parte aktiboa hartzera: «*Nik gaez esana, esan zuek egun argitan*». Ilunabarrean, atsedetera joan aurretik, argitzen diena, beldurrik gabe jakinarazi behar dute «egun argitan». «*Nik belarrira esana, aldarrikatu zuek teilatu gainetik*». Bihotzean sakon sar dakien belarrira xuxurlatzen diela, plazaratu egin behar dute.

Beldurrik izan ez dezaten azpimarratu die Jesusek. «*Nire alde denak*» ez du zertan beldur izan. Azken auzia ezusteko pozgarri izango du halakoak. «*Zeruko nire Aita*» izango du epaile, mugarik gabe maite duen Aita. Ni neu izango nau defendatzaile, «*haren alde aterako naizen hau*». Nork eman diezaguke esperantza handiagorik probaldian?

Jesusek bere ikasleak fededunen talde bezala irudikatzen zituen, beldurrik gabe «*bere alde ateratzen*» dakien talde bezala. Zergatik ez ote gara gu pertsona libreago Jesusen aldeko bide berriak urratzeko? Zergatik ez ote gara ausartzen era xume, argi eta zehatzean ebanjelioaren muina aurkezten?